

## **MALDATXO KALEKO MANTENIMENDU LANEN INGURUKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko urtarrilaren 16an Gune Publikoetako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2016ko abuztuan, Egia Bizirik auzo elkarteak hogeita bat bizilagunek izenpetutako eskaera bat aurkeztu zuen. Eskaerari erantsita zetozen irudiek erakusten zuten zer gaizki zeuden Maldatxo kaleko zoladura eta horma.

Azaroaren 15ean, beriro ere, Maldatxo kaleko hormaren egoera salatzen zuen idazki bat aurkeztu zen. Idazkian adierazten zenez, Udaleko Ondasunen Erregistroan, lursaila publiko bezala identifikatuta dator (04091-B2-s erregistroan) eta, hortaz, hormaren mantenimendua Udalari dagokio.

Aurkeztutako salaketa eta bizilagunen segurtasunean eragiten duen kezka ikusita, abenduko batzordeetan zinegotzi ordezkariari galdetu genion ea udal teknikariek egiaztatuta duten Maldatxo kaleko hormaren egoera eta ea zer balioztapen egin zuten hartaz.

Aldi berean, galdetu genuen ea zer jarduketa egin behar diren segurtasunaren eta itxuraren aldetik horma hori egoera egokira itzultzeko, eta ea noiz egingo ziren jarduketa horiek.

Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen horma ez dagoela Udalaren lursail batean eta haren mantenimendu eta konpontze lanak frantziskotarrei dagozkiela; beste azalpenik eman gabe.

Hori ikusita, urtarrileko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genuen lursailaren publikotasuna argitzeko eta mantenimendu lanak zeini dagozkio zehazteko. Batzordean zinegotzi ordezkariak adierazi zigunez, “lan asko egin ondoren lursaila publikoa dela topatu dut eta, hortik abiatuta uler daiteke horma ere Udalarena dela”. Horrekin batera aipatu zuen teknikariak bidaliko zituela hormaren egoera zein den aztertzeko.

Ez dugu ulertzen nolatan 2016ko abuztutik datorren eskaera honi ez zaion erantzunik eman eta zergatik ez diren teknikariak bidali dagoeneko. Ulertezina da, baita ere, zinegotzi ordezkariak bost hilabete behar izatea lursail bat publikoa edo pribatua den zehazteko, jakinda Udal Ondasunen Erregistroan publiko bezala identifikatuta dagoela.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

**EH Bildu talde politikoa**  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -  
20003 Donostia  
[eh\\_bildu@donostia.eus](mailto:eh_bildu@donostia.eus)

1. Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari Mالداتخو kaleko lursail publikoan beharrezkoak diren konponketak egin ditzala eta inguruko bizilagunen segurtasun baldintzak zain ditzala, horma egoera egokian ipiniz.
2. Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari, zonalde bateko mantenimendu eta garbiketa betebeharrei uko egin baino lehen, zorrotz azter dezala lursaila publikoa edo pribatua den.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**